

GAZTE ERRONKA!

- Ekainak 17, astelehena, 9:30 Andoainen

Andoainen, 24-06-10- Andoaingo Udaleko Euskara eta Gazteria lansailek herriko Gazte Lokala eta ikastetxeekin batera Gazte Erronka ekimena antolatu dugu datorren ekainaren 17rako. Pasa den irailean DBH1-2ko ikasleekin egin genuen bezala, oraingoan DBH3-4ko ikasleak bilduko ditugu Leitzaran ibaiaren bi txokootan: Olazarren eta Otietan. Udalaren asmoa da euskara arlo ludikoarekin identifikatzea, kirolarekin, jokoekin... Nahiz eta ikastetxeetan euskara den hizkuntza nagusia, egia da aisialdi garaian askoz gutxiago erabiltzen dela euskara, batzuek aukerarik ez dutelako, eta beste batzuek gaztelaniaz egitea nahiago dutelako. Erabilera eskas horrek askotan ekartzen du eguneroko ohiko jardueretan euskaraz aritzeko gaitasuna galtzea, horregatik hain garrantzitsua da aisialdian eta egoera ez formaletan ere euskararen erabileran trebatzea.

Ekainaren 17an, astelehenean, 9:30ean, Beheko Plazan elkartuko dira gazte horiek guztiak, eta hortik oinez abiatuta, batzuk Olazarrera eta besteak Otietaraino joango dira. Talde txikitan antolatuta, gynnkana modukoa egin beharko dute eta ibilbide horretan biltzen duten materialekin itsasontzi bat eraiki.

Euskararen erabilera sustatzeaz gain, gazteen arteko lankidetzaz sustatzea, ikastetxeen arteko harremanak sendotzea eta eremu komunitarioan agente desberdinen arteko kolaborazioa sustatzea dira ekimenaren helburuak.

Guztira 300 lagun inguruk hartuko du parte Leitzaran Bisitarien Etxea kudeatzen duen Bizibiziki enpresaren gidaritzapean.